XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5354

218/2011 DEKRETUA, urriaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011 ekitaldiko aurrekontuko 9211 programan («Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak») diru-sarrerak lortu direla-eta, 4222 programan («Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa») eta 4226 programan («Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza») 745.485,06 euroko kredituak gaitzen dituena.

Hezkuntza Ministeriotik 715.360,40 euroko diru-sarrera gehigarria lortu da, Acredita Programan aurreikusita dagoen lanbide-gaitasunak ebaluatzeko prozedura finantzatzeko.

Hezkuntza Ministeriotik 30.124,66 euroko diru-sarrera gehigarria ere eskuratu da, Euskal Autonomia Erkidegoak Spainskills eta Wordskills lehiaketetan parte hartzeagatik sortutako jarduerak finantzatzeko.

Goian aipatutako kredituak –745.485,06 eurokoak– gaitzea eskatzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Horiek horrela, gaitu egingo dira kreditu horiek, 1/2011 Legegintza Dekretuaren 82. eta 83. artikuluak betez (1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena).

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko urriaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan, kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	238.453,47
4226	454.99	476.906,93
	Guztira	715.360,40

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	431.00	715.360,40

Acredita Programan aurreikusita dagoen lanbide-gaitasunak ebaluatzeko prozedura finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

Bigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan, kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4222	238.99	30.124,66

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	431.00	30.124,66

Euskal Autonomia Erkidegoak Spainskills eta Wordskills lehiaketetan parte hartzeko sortutako jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urriaren 18an.

Jarduneko lehendakaria,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.